

Cáritas Bizkaiak arreta ematen dien eta baliabide nahikorik ez duten familiei, zirkuitu "normalizatuetan" oinarrizko kontsumo produktuak eskaintzen jarraitzeko

CÁRITAS BIZKAIK, EROSKIK ETA LABORAL KUTXAK "JANARI TXARTELAK" EMATEKO LANKIDETZA HITZARMENA 3. ALDIZ BERRITU DUTE

- Hiru erakundeek krisi sasoi honetan elkarlanarekin eta gizartearekin duten konpromisoa indartu dute berriz ere. Aliantza honekin duela lau urte luze martxan jarri zen "janari txartelen" proiektua berritu dute 2015erako. Horri esker asetzen dituzte Cáritas Bizkaiak laguntzen dituen pertsona eta familien beharrak. Janari txartelen bidez, pertsona horiek oinarrizko beharrianak estaltzeko aukera dute, laguntza-prozesuaren barruan duintasuna mantendu eta aukeratzeko askatasuna emanez.
- EROSKIK eta LABORAL KUTXAK elkartasun ekintza honetarako azpiegitura jartzen dute eta gainera diru-ekarpen osagarria egiten dute, CÁRITAS BIZKAIAREN AZ gain.
- CÁRITAS BIZKAIK, bere aldetik, harreran bere "gizarte-ekintza ereduari" jarraiki artatzen dituen familien artean banatuko du. Baliabide hori, egoerarik zailenetan dauden familientzako ohiko oinarrizko beharrak asetzeko laguntzei gehituko zaie.
- Janari txartelak EROSKI kooperatibaren Bizkaiko edozein saltokitan trukatu daitezke.

Bilbon, 2015eko otsailaren 24an - CÁRITAS BIZKAIK, EROSKIK ETA LABORAL KUTXAK berriro lagunduko diete krisiak eraginda oinarrizko beharrianetarako baliabiderik ez dutenei. Helburu horretarako, hirugarrenez lankidetzaren hitzarmena sinatu da, aurrez 2009an sinatu eta 2012an eta 2014an berritu da. Horren bidez "janari txartelak" emango zaizkie Cáritas Bizkaia-ko Harreretan artatutako pertsonen artean irizpideak betetzen dituztenei; txartel horiek EROSKI kooperatibaren Bizkaiko edozein establezimendutan trukatu ahal izango dituzte. Elkartasun ekintza honetarako beharrezkoa den azpiegituraz gain, EROSKIK eta LABORAL KUTXAK aparteko diru-ekarpina egingo diote CÁRITAS BIZKAIARI proiektu honetarako. Helburu nagusia Cáritas Bizkaiak arreta ematen dien eta

baliabide nahikorik ez duten familiei oinarrizko kontsumo produktuak “normalizatutako” zirkuituen bidez eskaintzea bada ere, proiektu honen bidez -2009an martxan jarri zenetik-, oinarrizko beharrianak asetzeko bidea normalizatu nahi da; ez, ordea, asistentzia hutsaren ikuspegitik, bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonak integratzeko eta gizarteratzeko prozesu zabalagoetan txertatuta baizik, betiere beren duintasuna eta eskubideak kontuan izanda.

Janari Txartelak:

“Janari Txartelak” emateko eta kontrolatzeko prozesuan inplikaturik dauden alderdi guztiek hartzen dute parte.

Alde batetik, CÁRITAS BIZKAIK bere harreretan laguntza eskatzen duten pertsonen edo familiei buruzko informazioa jasotzen du, ezarritako baldintzak betetzen dituzten jakiteko. Harreretako boluntario taldeek eskaerak jaso eta onuradunak onartu ondoren, gizarte langile batek prozesu guztiaren jarraipena egiten du, ekimen honek behar bezala funtzionatzen duela egiaztatzeko.

EROSKIK, bere aldetik, proiekturako diru-ekarpina egiteaz gain, bere sistema informatikoak jarriko ditu, oinarri-oinarrizko elikagaiak eta higiegi produktuak soilik trukatu ahal izateko.

Azkenik, LABORAL KUTXAK, diru-ekarpina egiteaz gain, finantza-egitura jarriko du proiektu honen zerbitzura Bizkaia osoan.

“Janari txartelak” 30 eta 50 euro bitarteko balioa izango dute, eta iraungitze-data sei hilabete eta urtebete bitartekoa izango da, eta Cáritas Bizkaia zigilua jartzeaz gain, Cáritasen “desbideratze agiria” izango dute erantsita, pertsonaren datuekin. Hilean 60 eurotik 110era bitarteko laguntzak izango dira familia bakoitzeko -familiako kide kopuruaren eta egoeraren arabera-, gehienez ere sei hilabeterako, eta salbuespenezko kasuetan bakarrik luzatu ahal izango dira. Cáritas Bizkaia baloratuko du -bere harreraren bidez- familia bakoitzaren egoera, baldintzak betetzen ote dituen jakiteko eta -betetzen baditu- laguntzaren zenbatekoa zehazteko. Txartelak elikadura eta higiegi arloko oinarrizko beharrianetarako produktuak erosteko soilik izango dira; gainerako produktu guztiak, beraz, salbuetsita daude.

CÁRITAS BIZKAIA: Cáritas Elizbarrutiaren gizarte eta karitate erakundea da, eta Bizkaia osoan bazterkeria arriskuan dauden pertsonen laguntzea du helburu. Horretarako, gizarte esku-hartzerako arlo desberdinak ditu: harrera, arropa, familia-gizarteratzea, haurtzaroa, edadetuak, laneratzea (enplegua), etxerik gabeko pertsonak, adikzioak, zerbitzu juridiko eta psikologikoak, etab. Horrez gain, nazioarteko kooperazioa, komunitate-animazioa, sentsibilizazioa, boluntarioratza, ikerketa... Nolanahi ere, Caritasen azken helburua bat bera da orain dela 50 urte sortu zenetik: Justiziaren alde lan egitea; gure gizartea eraldatu eta gizarte justuagoa lortzea, berdintasunean eta anaitasunean oinarrituta, non pertsona guztiek -bazterkeriarik gabe- beren lekua izango duten.

2013an, Cáritasek bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden 12.000 pertsona baino gehiago artatu zituen Bizkaian; 2007an krisia hasi zenetik, %50 hazi da, batez ere -urte hauetan- premiazko laguntza eskarrietan (janaria, arropa, etxebizitza...) eta enpleguan.

EROSKI:Sortu zenetik, EROSKIK gizarte ekintza arloko hainbat ekimen burutu ditu, batez ere hauen inguruan: bizi-ohitura osasungarrien sustapena, kontsumitzailearen prestakuntza, ingurumena eta elkartasuna.

EROSKIK hasieratik garatu du programa solidario bat eta helburua gizarte bidezkoago edo kohesionatuagoa sustatzea da.

LABORAL KUTXA:

Krisi honen aurrean, Laboral Kutxak janari txartelen ekimen hau gehitu die, premian dauden familiei laguntzeko lehendik garatutako ekimenei. Esaterako, hipoteka kuoten ordainketa erraztea edo %0ko interesa duten nominen ordainketa aurreratzea. Enpresei begira, finantza-produktu batzuk eskaintzen ari da, hala nola zirkulatuzaile-finantzazioa, abalak, kredituak, leasing, baita ekintzaileei baldintzarik gabeko laguntza ere, "Gaztenpresa" fundazioaren bidez. Horri esker, azken 5 urteotan (2014a barne) 1.389 enpresa sortzen lagundu du eta horiek 2.310 lanpostu baino gehiago sortu dituzte.

Hitzarmen berria honakoek sinatu dute:

- ✓ CARLOS BARGOS CUCÓ jauna, Bilboko Elizbarrutiko Caritaseko Zuzendaria.
- ✓ ALEJANDRO MARTÍNEZ BERRIOCHOA jauna, Eroski Fundazioko Zuzendaria.
- ✓ PEDRO MARÍA UGALDE jauna, Laboral Kutxako Lurralde Zuzendaria.

Para seguir proporcionando acceso a productos de consumo básico por circuitos 'normalizados' a familias atendidas por Cáritas Bizkaia que no disponen de recursos suficientes

CÁRITAS BIZKAIA, FUNDACIÓN EROSKI Y LABORAL KUTXA RENUEVAN POR 3ª VEZ EL CONVENIO DE COLABORACIÓN PARA ENTREGAR “VALES DE ALIMENTACIÓN”

- Las tres entidades refuerzan así -una vez más- su compromiso con la sociedad y de trabajo conjunto -en esta coyuntura de crisis- renovando para todo 2015 con esta alianza el proyecto de vales de compra que se puso en marcha hace más de cuatro años para cubrir las necesidades de muchas personas y familias atendidas por Cáritas Bizkaia.
- los vales de alimentación posibilitan el acceso en la cobertura de necesidades básicas de una forma que favorecen la dignidad y capacidad de elección de las personas en el marco de un proceso de acompañamiento.
- EROSKI y LABORAL KUTXA aportan la infraestructura necesaria para la iniciativa solidaria y -además- realizan sendas aportaciones monetarias adicionales a la de CÁRITAS BIZKAIA.
- CÁRITAS BIZKAIA -por su parte- realizará su asignación entre las familias atendidas por sus propias acogidas en el marco de su 'modelo de acción social', y suponen un recurso añadido a otros que de forma habitual se utilizan para la cobertura de necesidades básicas de las familias en situación de mayor dificultad.
- Los vales de alimentación se podrán canjear en cualquiera de los establecimientos de la cooperativa EROSKI en Bizkaia.

Bilbao, 24 de febrero de 2015 - CÁRITAS BIZKAIA, FUNDACIÓN EROSKI y LABORAL KUTXA apoyan una vez más a aquellas personas que -afectadas por la crisis- no disponen de los recursos suficientes para afrontar las necesidades básicas. Con este objetivo se renueva por segunda vez el convenio de colaboración firmado en julio de 2009 y renovado en ya en dos ocasiones (2012 y 2014), mediante el cual se entregarán “vales de alimentación” a las personas que -atendidas por las Acogidas de Cáritas Bizkaia- cumplan además unos determinados requisitos, para que los puedan canjear en cualquiera de los establecimientos de la cooperativa EROSKI en Bizkaia.

Además de aportar la infraestructura necesaria para el funcionamiento de esta iniciativa solidaria, FUNDACIÓN EROSKI y LABORAL KUTXA realizan una aportación monetaria adicional a los recursos de CÁRITAS BIZKAIA para este proyecto.

Al objetivo principal de proporcionar acceso a productos de consumo básico por circuitos 'normalizados' a familias atendidas por Cáritas Bizkaia que no disponen de recursos suficientes, con este proyecto se busca -desde su implantación en 2009- normalizar ese acceso a las necesidades básicas desde claves no meramente asistenciales, sino integradoras y enmarcadas en procesos más amplios de incorporación social de las personas en situación o riesgo de exclusión, todo ello dentro de las claves de dignificación de estas personas y desde una mirada de derechos.

Vales de Alimentación:

La entrega y el control de los "Vales de Alimentación" siguen un proceso en el que colaboran las partes implicadas. Por un lado, CÁRITAS BIZKAIA realizará la recogida de información sobre la situación de la persona o familia que solicita una ayuda en sus acogidas para determinar si cumple los requisitos establecidos. Una vez recogidas las solicitudes y concedidas a las personas beneficiarias por los equipos de voluntariado de las acogidas, una trabajadora social se encargará de acompañar todo el proceso para comprobar el correcto funcionamiento de la iniciativa.

EROSKI, por su parte, además de hacer una aportación económica al proyecto, proveerá sus sistemas informáticos que permitan que solo sean canjeables por el vale productos de alimentación e higiene de primera necesidad.

Finalmente, LABORAL KUTXA, además de una aportación económica, pone su estructura financiera al servicio de este proyecto en toda Bizkaia.

Los 'Vales de alimentación', cuyo valor facial es de 30 y 50 euros, tendrán una caducidad de entre seis meses y un año y -además de estar sellados por Cáritas Bizkaia- llevarán adjunto el 'volante de derivación' de Cáritas con los datos de la persona para su informatización. La cuantía de la ayuda por familia será -dependiendo del número de miembros de la misma y sus circunstancias- de 60 a 110 euros mensuales, durante un máximo de seis meses, prorrogables solo en casos excepcionales. Será Cáritas Bizkaia -a través de sus acogidas- quien valore la situación de cada familia para determinar si cumple los requisitos y -en caso afirmativo- la cuantía y duración de la ayuda.

Los vales deberán ser canjeados únicamente por productos de primera necesidad del ámbito alimenticio y de higiene básica; quedando -por lo tanto- excluidos el resto de productos.

CÁRITAS BIZKAIA:

Cáritas es la entidad socio-caritativa de la Iglesia Diocesana para atender a las personas en situación o riesgo de exclusión en toda Bizkaia. Para ello, cuenta con diferentes programas de intervención social como: acogida, ropa, familia-inserción social, infancia, mayores, inserción laboral (empleo), personas sin hogar, adicciones, servicios jurídico y psicológico, etc.; además de cooperación internacional, animación comunitaria, sensibilización, voluntariado, investigación... Sin embargo, el fin último de Cáritas sigue siendo el mismo desde sus orígenes hace ya más de 50 años: trabajar por la justicia; transformar nuestra sociedad en otra más justa, igualitaria y fraterna, donde todas las personas -sin exclusión- tengan cabida.

En 2013, Cáritas atendió a más de 12.000 personas en situación o riesgo de exclusión social en Bizkaia, con un incremento del 50% desde 2007 (especialmente con demandas -durante estos años- de ayudas de primera necesidad -como alimentación, ropa, vivienda...- y empleo); así como una denuncia de la creciente cronificación de la pobreza y la exclusión social.

EROSKI:

Desde su fundación, EROSKI lleva a cabo múltiples iniciativas de acción social, principalmente relacionadas con la promoción de los hábitos de vida saludables, la formación al consumidor, la defensa del medio ambiente y la solidaridad.

EROSKI desarrolla, desde sus inicios, un programa solidario que tiene por objetivo fomentar una sociedad más justa y cohesionada.

LABORAL KUTXA:

Laboral Kutxa ante la crisis actual, suma esta iniciativa de vales para la alimentación a otras ya desarrolladas de apoyo a familias con dificultades. Por ejemplo facilitan el pago de cuotas de hipotecas o bien anticipan el pago de nóminas con un interés del 0%.

De cara a las empresas vienen ofertando un conjunto de productos financieros como líneas de financiación de circulante, avales, créditos, *leasing*, así como un apoyo incondicional a emprendedores a través de su fundación 'Gaztenpresa', que solo en los últimos cinco años (incluido 2014) ha contribuido a la creación de 1.389 empresas que han generado más de 2.310 puestos de trabajo.

Han firmado el nuevo Convenio:

- ✓ D. CARLOS BARGOS CUCÓ, Director de Cáritas Diocesana de Bilbao..
- ✓ D. ALEJANDRO MARTÍNEZ BERRIOCHOA, Director de Fundación Eroski.
- ✓ D. PEDRO MARÍA UGALDE, Director Territorial de Laboral Kutxa.